

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN TXOSTENA  
(NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA)**

**Nafarroako Gazteriaren Institutuak ekainaren 21eko 235/1999 Foru Dekretua aldatzeko prozesua abiatu du; foru dekretu horren bidez arautu ziren haur eta gazteen aisialdirako eskolen onarpen ofiziala, eskola horien eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren arteko harremanak, eta haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileen prestakuntza”.**

*Horri buruz zera adierazi nahi da:*

*a) Egungo foru araudiak 20 urte baino gehiago ditu, eta denbora tarte horretan aurrerapen garrantzitsuak egin dira aisialdiko eskolen dinamiketan eta lanetan.*

*Hau da konpondu beharreko alderdietako bat: ikaskuntza-edukiak egokitu egin behar dira, Gazteriaren Lurralde arteko Kontseiluaren 2012ko ekainaren 21eko erabakiari jarraikiz eta Estatuko aisialdiko beste eskola batzuekin bat.*

*b). Araua onesteko premia eta egokitasuna aurreko paragrafoan esandakoan oinarritzen da eta, gainera, lotuta dago 2020-2023rako Gazteriaren Foru Estrategian eta 2021-2023rako Gazteriaren III. Foru Planean ezarritakoarekin. Estrategian, aisialdiak gazteriarengan duen garrantzia azpimarratu eta nabarmendu da berriro. 2021ean Gazteriaren III. Foru Plana onetsi da, eta haren ekintzetako batean (H07 izenekoan) aipatzen da “aisialdiko eskolen araudia eguneratzea” dela garatu beharreko ildoetako bat. Nafarroako Gazteriaren Institutuak ofizialki onartuta dauden aisialdiko eskolei galdetu die, eta oro har bat datoz: araudi hori aldatu beharra dago.*

*c). Arauaren helburuetako bat da bertan ezartzen dena bat etor dadila egungo errealitatearekin (prestakuntza-edukiak, irakaskuntzako metodologiak, bitarteko presentzialak eta telematikoak...). Era berean, aisialdiaren alorreko prestakuntzaren araudia egokitu nahi da lanbide-kualifikazioak argitaratu ondoren sortutako egoera berrira. Horren ondorioz, prestakuntzaren edukiak, funtsean, Espainia osoan berdinak izanen dira, eta erraz aitortu eta homologatzeko modukoak. Horri esker, profesionalak errazago mugitzen ahalko dira Estatuan.*

*d) Abagune hau ona da araudia aldatzeko, zeren, aldatu ezean, araudi zaharkitua izaten jarraituko dugu, gaurko beharrei eta egoerari erantzuten ez diena.*